

Olgetak aide zabalean

Olgetak aide zabalean Olgetea da haurren zeregin nagusia. Horixe erakusten deusku, hain zuzen be, «haurrak, haurlan» esaera zaharrak. Eta, bizitza tradizionalan, jolasetariko asko eta asko aide zabalean egiten ziran.

Jarduera horreetan hurrek askotariko harremanak egiten ebezan animaliakaz. Marigoringoa, kasurako, sagradua zan; eguraldi iragarletzat eukien. Intsektua hatz erakuslean jartzen eben hurrek, eta hatzean gora joiala zera galdetu:

Marigorri, gona gorri.

Bihar eguzki ala euri?

Atzamar puntaraino igon eta hegaz egin ezkerro, eguraldi ona egingo eban seinale zan; ezpabe, euria etorren.

Ohikoa zan txirritxirrietan joatea be. Euren gordelekuagaz bat egiteko, lehenengo eta behin, haren kantua nondik etorren asmau behar zan. Ostean, zuloa topau, handik txirritxirria atera eta beragaz olgetan eben. Kasurik gehienetan, kaiola baten sartu eta etxera eroaten zan, haren kantuz disfrutatuko.

Udabarria helduaz batera, txorien ugalketa-aldia hasten zan. Eta herri txikietan, txorihabieak topetea izaten zan ume txikien entretenimentu handienetarikoa. Taldean joaten ziran euren bila, eta, ostean, besteen aurrean harro erakusten eben zenbat habia topau ebezan, zein txori-klaserenak ziran eta zein fasetan egozan. Habia non egoan ez zan esaten, jakina; hori sekretua izaten zan.

Bestalde, neska-mutikoak iturri, uraska, pozu eta errekaetara joaten ziran zapaburutan edo bainetan. Gainera, batzuek arrantzarako afizino handia eukien; kaskailuak, aingirak, karramarroak... atrapetan ebezan.

Umezaroko beste jarduera batzuk landara-munduari lotuta egozan. Ume batzuentzat ez egoan denporea pasetako modu hoberik txikori-bedarrari putz egitea, txibiritei orriak kentzea edo lora eta orriakaz apaingarriak egitea baino. Basoko frutuak biltzea zan beste asti-emongarri bat. Etxera eroateko batzen ziran, edota zuzenean jaten ebezan bidebazterretako sasiarteetatik; eta bide batez, eurakaz arpegia be margotzen eben. Beste batzuen artean, barriz, ohiturazkoa zan inoren lurretan sartu eta frutea ostutea.

Horrezaz gainera, Euskal Herrian oso zabal ibili da kalabazei barruko mamina kendu, azalean begiak eta ahoa egin, eta kandlea sartuta, gauetan jentea sustetako lekuetan jartea.

Lehengo moduan olgetako lekurik ez egoteak eta teknologia barriek umeakan izan dituen eraginak guztiz baldintzatu dabe euren olgetako erea. Gainera, gaur egun, eskolaz kanpoko jarduerak garrantzi handiagoa hartu dabe; eta, ondorioz, jolaserako denporea asko murriztu da.

Azken baten, helduon munduan gertatu diran aldaketek txikienera be gorabeherak ekarri ditue; eta, hori dala-ta, olgeta asko eta asko galdu egin dira. Halanda be, olgeta horreek ezagutu doguzanon esku dago eurak egoera barrietara moldatu eta besteei transmitidutea.

Ziortza Artabe Etxebarria – Herri Ondarea Arloa – Labayru Fundazioa